



Euskalerriko berriak

GIPUZKOA

Aizarnazabal.—Igarotako urte zar eta berria bezelakorik emen ezagutu ez dala diote. Jesus'en Biotzaren iru egunetako elizkizunetan Aita Alkain izan degu izlarria, ta bai ederki ta sustu egin ere. Jende pranko pozez entzun ditu itzaldiak. Azkeneko egunekoan egunero elizkizunetan eta amaieran Jaunartzen ikusi zituen mutillak asko jaso zituen, beriz ere ofelako mutillak asko jaso zituen, beriz ere ofelako mutillak asko jaso zituen.

Aurera bada mutillak. Ekari lenbailen aibeste maite zaituzten Aita Alkain.

Altxa.—Madrid, Bartzelona ta beste uri batzuek ikeritu (bisitatu) ondoren, beren ezkon-ibilketari amaituaz, Ondafabri'ra bihurtzeko asmoan emen agurtu ditugu Nikolas Duinat jauna

gabe dago. Bertako efetore jaunaren izenarekin ez al litzake ondo egongo? Orenbeste lan egin dituen ibarguren jaunaren izenarekin? Udalak au egin beaf lukela oldoztu det.

—Igaro dan ilaren 50'an Aurizenea' tar Jose Manuel apaiz jaunak 71 urte osatu ditu. Zorionak.

«Sagu-beltx» eskefak gureztat opa dituzun zorianagatik eta irakurle «Sagu-beltx» ek beste aibeste opa dizkizula jakin ezazu.)

Ortz-agin-orde

edo postizo zarak erosten ditut. Urbieta, 52, Moraza'ertzeke Zilartegi edo Plateriyan.

Azkoitia.—Urola burñibide lanetan ez beaf bat izan zan lengo asteen. Arfignenzat morteroakin dijala txifist egin eta 12 neurkin (metro) goibe

perantza Mutilloafakin, Ama Lieznikoaren elizan.

—Egun gutxi baru eskonduko da Barandiaran'daf Joxe, Zaldibiko neska jator eta on batekin. Zorionak guztiai.

Lezo.—Eguari jaietan oso antzerki politik ikusi ditugu ta ederki antzes-tuak... bañan «La Marcha de Cádiz» batetik, «Juana de Arco» bestetik, asko ta askok uleřtu gabe gelditu ziran. Ez ofela «Urutziketa» ta «Tripa Zořia»: abek oso ederki ulertu ziran eta beren «txistak» erderazkoetan bezela etzuten iges egiten.

Zorionak neska mutillai ta baita Ayestaran'daf Julian apaiz langile ta aien irakasle danari ere.

—Eguari jaiak gurasoakin igarota beren ikastetxetara juan zaizkigu Garbizu'tar Liborio, Intxaurandietar Luis eta Salaberriat'ar Lino mutikoa. Irurak apaiz gaiak. Asko ikasi ta oar onak ekari Deun Juanetan, ori da gurasoen poxa ta.

—Gure adiskide Mekolalde'tar Karlos aspaldian bildurak aidean omen zebilen bere abizena gelduko te zan edo, ta oraintxe lasaitu zaigu bere emazte Garbizu'tar Maria'gandik seme mardul-mardul bat izan duelako. Ama semeak oso ondo arkitzen dira ta zorionak.

Mendaro.—Emen izan ditugu Enrique ta Juan Jose Saint Geron gazteak.

Mutriku.—Ulřte onen lenbiziko eguna ez da Mutrikuaren gogotik alde

BANCO VASCO DONOSTIA

Irabazi edo interesak iru ilabetetik iru ilabetera jaso ditezke.

Aldi jakinerako diru-jarřtea

URTEBETERAKO: 5^o %

BI URTERAKO: 5^o %

IRU URTERAKO: 4,75^o %

LAU URTERAKO: 4,50^o %

ta bere emazte Oyarvide'tar Efamuna. Zorionak.

—Beasain'daf Sotera, Zubilaga'ren alarĝun agurřařia eriotzak betikotasunera eraman du. Otoi bere gogo alde. G. B.

—«Beti Auřera» ta «La Armonia» bazkunak beren urteroko batzarak egin dituzte, bazkintz artezkari beřiak izendatuz.

Amasa.—Juan dan igandeko efetore partiduana Jauregi, Garate, Tapia ta Lertxundi'k, Ayestaran, Urdapilleta, Afatibel eta Barbę zazpi jokuan utzi zituzten.

Amalka jokura jokatu zan partiduana. —Burdeos'era bere semeak ango ikastetxe batean ustera juan da Portu'tar Benito, Portu Anaik eta Lagunak bazkuneko artezkaria.

Andoain.—Astearitean juan ziran Zatarain, Llanue ta Okiřena gazteak beren ikastaroa jarraitzera.

—Ulřtia'tar Joakin ere asmo beraz Donosti'ratu da.

Anoeta.—Azken agurřa eginda juan zaigun urte ofetan ařia azitzen bada gure erřa, laxter degu Donostia bařo aundiagoa. 15 jaitu dira ta 4 bakarřik il. iZegun da bai aspaldian azitze aundi daramala gure erřak!

—Urteari bukaera ona emateko, elizkizun ederak egin diru iru egunean, Azpetiar Laureano Aita kaputxinoak itzaldiak euskera garbi ta ederean egiřaz. Jende asko bildu da elizkizun oietara: esagun da oraindik sinismena badagola gure erřian.

—Laxter ekontzeko omen da Lasa'tar Juan Joxe, lengo alkatarean semea, Tolosa'ko neskatx lirain batekin. iJa Lasa, ez diagu erřian mutill zarřk beaf, ta... urte askoan!

Afasate.—Aurien ere igaz bezela ikastoloteko ume batzuek txino erara jantzita, ango umientzat dirua biltzen ibili dira Eřege egunean, meza nagusian lenengo ta gero kalerik kale. Afatsaldean askari edo merienda bat izan zuten ume guztiak.

—«Club Deportivo»-ko lenengo taldea ařo dabil aurien 4 ta 0, ta 5 ta 0'z irabazi diote Eibar'ko «Lagun Artea» ta «Txiribiri» taldeai.

—Ulřte beři egunean il zan Ortiz Urbina'tar Pelis jauna, atsekabe galanta utzita batez ere baserřitaran arřean, baseri guziak bere ardurapean bai-zeuzkan sendagile on onek. Goyan bego.

—Balanzalegi'tar Lorentzo ta Mendikute'tar Martina'ren lenengo eskon deia entzun degu.

Aya.—Inguruetako erřetan bezela emen ere ařteru gabe eudia izan degu ta elufak ere mutur zuri-zuria erakutsi zigun igaro dan ilean. Gari lanak atzera daude.

—Aizpeko elizatik eliz nagusira orain urte bete egin zan maladi (eskalera) edef bat oraindik izenik ipini

edo alturatik erori zan Santiago Castilla langilea.

Buru ezurřa autsi zuen eta «Aldeixe» baseřia eraman eta al zuten guzia egin zioten arfen gizarajoa andik orđu betera itoztik arkitzen zan. G. B.

Dr. ANTONIO ARRIETA'K

zura sudur, estarři eta belařietako miřiak sendatuko dizkiztu; bereziki Alemania'n gai-ori ikasi du.

Esuskeraz garbi itz egiten du

Prim kalea 19, 4.ª — DONOSTIA

Azpeitia.—Au idazten ari geranako gure Keixeta'k «Aya'ko Txikia» rekin aizkora apustua antolatuko zuen noski. Pozik ikusiko genuke bada apustu ori.

Donostia.—Astelenean il da erři ontan Aizpurua ta Muguruzar'ar Joxepa, andre agurřari ta ezaguna. Barřiola'tar Abelino, aldun jaunaren ama zan. G. B.

Bere sendi guziari ta batez ere bere seme Pablo ta Abelino'ri gure samin agurřik biotzetikakoena. Ta irakurleai otioiz bat eskatzen diotegu bere gogo alde.

—Asteazkenean ezkondu ziran Jesus'en Biotz ikastolako eliztxoan gure lagun ona dan Albeřo'tar Agustın eta Aranburu'tar Joxepa neskatil lirain eta atsegina! Ongi dakite zenbat zorion opa diotegun.

Eibar.—Kruzelegi'tar Luzio, Trokaola'tar Julia'rekin asteazkenean ezkontzen dala ta Eřege egunean Gaxoetxeko beartsuak alaitu zituen otoruntz edef bategaz. Irurogei laguntetik gora bildu ziran eta beren poza aundia izan zala esan beari ez da noski.

Gaxotegiko Ama nagusiak Kruzelegi jaunari bere eskerik suitsuena egiten dio.

Zorionak, eta oso egite polita da gure iritxian ere.

Elgoibar.—Txina'ko mixioetaroko seireun laurleko bildu ziran gaur amabost erři ontan.

—Ostjiralean zořti ezkondu ziran Astigaraga'tar Eřikardo ta Iriondo'tar Adela. Zorionak.

Lazkano.—Eřege egunean eliz jai edefak izan ditugu eliz-nagusiko apainketa ospatzeko. Agire'tar Daniel bikario jaunak egin zuen berak dakin bezela itzaldi edera. Eliz apainztea Agirebeitia'tar Anjel margolariak, Tomas Bulman eta Manuel Lopez'ek lagunduta egin du.

Larunbatean zořti eskondu zaigu Afuabarena'tar Paulo, Mujika'tar Es-

gingo duen oietakoa. Egun arřak beřiak ondo ta ziatz ematen zala dan arfen, laburřo ta nolobait bada ere zerbat esango dituzet.

Meza nagusi edef eta bereziko eran abestua ta arřipreste jaunaren itzaldi edef bategaz izan zan. Elizatik irten ziran Uri-eresbatza auritik, Udala ondoren Alkate jaunak Etxeberřia jauna bere eskubirik zuela, ta atzetik Jaupal-Batz edo Klere; Udal aretoa eldu ziran eta an ezarři zioten Etxeberřia'tar Jose Maria jaunari bere bularřean uřeško gurutze edera, berak uriko gaxo alde, orain urte batzuek izan zan gaitezaldi itzalean, egindako lan gogof ta aundiagatik. Une ontan itzaldi bikařak egin zituzten guztiak oso txalotuitz izanik eta «lunch» batekin amaituaz.

—Txina'ko sinisgeen alde egin

Banco Vasco DONOSTIA

Avenida de la Libertad, 35

Zernaitako diru arř emanak eta diruřteak ko beste gora-bera g ziaz egiten dira BANG onetan.

dan jaien 604 laurleko ta 15 eunen bildu dira.

—Iganďean arřantzale bazkun etxe beřiarean zabalkunde dala ta poztasun aundia ageitzen da uritaren arřean. Erřesteko asko etorřiko diran susmuřak dira. Jai edefak izango omen dira.

—Agustindar lekaimetxean, notin askorekin, ari dira Jesus Nazaretaren bederatziferena egiten. Bertan lau azkenengo egunetan itzaldi edefak egingo ditu Amondarain'daf Antonio jaunak.

—(Guk uste bezela «Arno-Mendi»'k izpfer polit abek bialdu dizkigu. Eskeřak.)

Ordizia.—Erauskin oleskariaren alaba Pantxika, Barandiaran'daf Jose'rekin ezkontzen da. Zorionak.

Tolosa.—Emengo oitura zar on bat aurien oso gultxua ikusi degu: mutill txikiak jaiotzakin eta neska txi-

kiak arřtzai-andre jantzita etxerik-etxe Jesus Auřari zořtziko politik abesten. iJa guraso zabařak! iNun zaudete zuen mutillxo ta neskatxoai eguari jaietako neurrřtz politik, abesti xamurřak ez erakusteko? iNun zaudete zuek txikitari ibiltzen ziřtetan eran,

Aingeruak esan du Of, mendi gafean, Jesus jaito zaigula Belen'go estalpean

abestuaz, zuen txikiak, aingeruřak bezela etxerik-etxe, alai ta pozez, ez bialtzeko?

Tolosa'ko gurasoak iZaldera au bera egin bearean izango ote gera datorien urřean? Jaungoikoak nai ez dezala.

—Salamanka markesa ta Kobian, ministro izanaren semea beribilean Madrid'era dijuazela, bide okeřera jo ta Oria ibaian itozteko zorian egon dira.

Beribila puřukatuta gelditu da, bařian inork miřik arřu eztu. Gaitz erđi.

Usurřibil.—Lengo igandean Luřs'tar Jannarřza gendun eta oietatik bakařik 85 mai Deunera urřildu ziran itzaldi edo seřmoirik ez gendun izan Meza nagusi eta bezperetan jende eruz zan.

Joan dan asteen ARGIA'k esan be zela Eřuki-etxeko antzokian jai ede řenetakoa emengo gaztediřak anto latu zigun. Gařera Arřia'ren *Egure* g'ko abesti polit eta parafařik arřay etxera gogotik astindu zituzten.

Oso ederki nexkak, egitako kome rianteak zirudiyen, eta majifabat pe řez urřtu ziran; Luis eta Sebastia galzazafetarean abesten bikain arřit ziran; tipleak ez dago zef esanik iye yua aiz xapatero! eta Maria'ren albak, aingeruak bezelaxe abestu ziguten.

Antzokia mutur-muturera jende bete egon zan, eta zioten, ia beř ofelako bat noiz egingo ote dan, arř isalde atseřnagorik ez omen da *p sible* igarotzea ta. Ulzi jaunak eska oni erantzun birařko...

Zumafaga.—Jaimetarak, Eře egunerako, erři ontan egiteko zeuk ten jaia, gerorako utzi dute. Batz aundi batean biltzeko asmotan di oraingo goraberak alde egin be: laxter.

—Madrid'en il zan Urdangarin Arřzabalaga'tar Maria, andre ona, bere gorpuzta erři ontara ekarři du Goyan bego.

Bere sendi guziari gure agurř miřia.

Zumaya.—Otařo'tar Ermenejil uri ontako osakailaria (botikario) řeko astein il da. Bere seme-ale gure agurř samira. G. B.

—Bere gaxotasunik ia senda arřkitzen da Arřola'tar Mertzedes, saitar andre erře ta liraira. Po tzen gera.

—Nasa edo mola beřiak aste o ko batean egiten asitzekoak dira. ragatik langileentzat lana ugari tuo da. Ez datorř gaizki orai beintzat.

BIZKAI

Ermua.—Bilbao'tik beři onak ditugu. Ormaetxea'tar Alejan «Ernu-zale» izenpetat duela eu raz aibeste idatzi izan duena, be lak arřapatuta oso gaizki eramar

Beste erieřtako beřiak.

«Dixmude»-koak

BIZORTA. —Emendik diotenez «Dixmude» aidekoaren ondakiřak topatu dituzte ta tarřtan bi gorpuz.

Komandantiaren gorpuzta Napoli'tik Prantzi'ra eramatea egin dute. Txalupatik «Strasbourg» ontzian sařtzen ari ziran bitarřtan kařoi danbadak eta ixistuak jo zituzten. Bi batel korolaz eta lorez beteak alderatu zitziotenen.

Baeřpadakoan

LONDRES. —Eřusi'tik kanpora bizi diran eřusitarak oraindi-orain Paris'en bilduta boltxebikiak kenduta eřegetza izango litzakeanarako, Nikolas dukia eřegetzat arřu zuten.

Orain beřiz, Londres'en, alako ez-kutuzko soziedade bat sořtu da Ziriilo dukia eřege nai lutekena.

Baliteke boltxebikiak pixka bateko egotea, bařio baeřpada ere...

Geřa beři bat

Serbia'ko egazkiřak Bulgari'ko erřien gařetik egin ibil ak dira. Bulgariak bere gizonak mugitzea agindu du. Serbitarřak geřtu daude Sofia'ra (Bulgari'ko erři nagusia) joateko.

Euskal-Etxea

MADRID. —Erři onetan bizi dan euskaldun pila aundi batek soziedade bat egin du, beřtan euskaldun guztiak alkarřanatu ditezten.

Ez omen da politika konturik aita-

tuko; soziedade oferi «Hogar Vasco» jarři diote izena ta bere tokia Carrera de San Jeronimo, 38'an da.

Lurřkarak

AZKONA. —Goizean, eluřa ari zuan bitarřtan, lurřkara nabaitu zan Iparafrik Ego-aldera.

Kalte aundirik ez zan izan. Astifaldi berbera nabaitu zan Rimini'n ta San Benedetto'n.

Scapizzano erřian etxe batek lurřa jo zuan; ez zan ilik izan.

Eluřa egonaren jendeak ez du nai etxean sařtu ta agintariak beren neuriak arřu dituzte jende ori oztu ez dedin.

Uraldiak

Paris'ko Sena ibaia gero ta dijoa aunditzen. Alma'ko zubian zazpi metro l'erdiařo iritxi da ura. 1910'garfen urřean zořti metro ta 32 zentimetro igo zan ta guztiak dakigu norafiko kalteak izan ziran.

Gutxiti bearean gero ta geiago dijoa aunditzen. Jendea oso lari dago, baliteke igaz bezela ura erřik beřena sařteza.

Egun batek bestera 380 lagun utzi beaf izan dute etxea.

Orsay'tik Austerlitz'era dijoan trenbidea uretan dago.

Inguruko auzoetan ur-ařeak baztarřak ondatu dituzten; zenbait tokietan jendea nekez atera da etxetik.

Jolasak

Uzkudun'en garaipena

Igaz zerbeitxo aitatuta, astiro esatera goaz Paulino'k Paris'en izan duan garaipen beřia.

Ořitarako Burdeos'ko «La Petite Gironde» deritzan izpeřingiak esaten duana jarřzera goaz.

«PARIS, ilbeliza 2. — Azteazken arřasean Wagram izeneko aretoan egindako bilerak oso ondore ona izan zuan. Arřas onetan izan zan jende ugaria arřututa gelditu zan Paulino'ren jazař edera ikusteaz, bada bere aurřkaria zeoro menderatu ta lurřa iru aldiz joarřzita, onek boskarřen jazařaldian utzi egin zion bořkari.

Azkeneko bořoka ezkeroztik eus kaldunak asko ikasi du. Indařa ezik iraupena ere badauka, ta orain ukabilkari arřututa trebetasuna arřzen ari dala ta asko auferatuko duala uste izatekoa da.

Itxuraz ikusten zaiona gero izaten ba'da, Paulino'k ukabilkari oneneta-koen arřtan tokia izango du.

Izpeřingi ořek jazařaren xetasunak onela daceřki:

«Lenego jazařaldian holandara la-sai dagoela ematen du, iri-pařez dago; bařo Paulino'ren ukabilasok noizpeinka arřtuaz «serio» jarři da. «Serio» jarřteak ez dio kalterik egiten Paulino'ren zořtako batez luřera erortzeke. Onek eskubiz masalezuean jo di.

Bigarřean, Paulino'k geiago menderatzen holandara; beřiz ere, beste zořtako batez, lurřa joarři dio.

Irugarřin ta laugarřen jazařaldian holandariak bentaja arřu nai dio; beaf bezela joa jarřzen dizkio Paulino'ri tankateko batzuek, bařio ez du euskalduna botatzen.

Paulino bi bideř beařtu da bere esku larřen atzean burua gortetzera. Boskarřen jazařaldia aři beřian ostera Paulino piztu da; eskeř-eskubiz izugarřiko maluketa egiten dio masalezurřetan, ta urdail zuloan zuzenka joaz botu du holandara.

Holandarřak nekez jaso du bere burua amirř segundo bitarřtan (bestela guldua like bořoka) ta alxata bořoka uztera djoala esaten du.

Bořoka edef ořen ikusleak asko txalotu zitın Paulino'ren garaipena.

Ořa ba, Euskal-Eři'ko onenak, Prantzi'koa, Beljika'koa ta Holanda'ko onenak garařtu dituz oraindafa.

!Gora Euskal Erřia!

Estropadak.—Naiz estropadetako iru trerřu geřtu egon, utzi egin diote trerřeru-estropadari ta batelen estropadak izango dira Donostia'n erřaren egunean.

Ona ondoren batelen izenak eta beren erřienak:

- «Sabino Aranaeta», Getari'koa.
- «Joseř Francisco», Zarauts'koa.
- «Maria», Orrio'koa.
- «Gure Maitia», Orrio'koa.
- «Miren», Orrio'koa.
- «Faustino», San Pedro'koa.
- «Angel», San Pedro'koa. (Batel onetan beřtan, bata bestearen urfen, Arřlaga, Laboa ta Lujanbio jaunak exerřiko dira).
- «Zu guria (Guk ere nai)», Ondařabi'koa.
- «Bi anayak», Ondařabi'koa.
- «Salustiano», Donosti'koa (Aldandondo, Oiegı ta Oronoz jaunak batel onetan).
- «Ederki etorřiya», Donosti'koa.
- «Maritxu», Donosti'koa.
- «Jesus Maria», Donosti'koa.
- «Santa Teresa», Donosti'koa.
- «Matilde», Donosti'koa.
- «Lucia», Donosti'koa.
- «San Antonio», Donosti'koa.
- Batel-estropadak Kontxan bařenan jokatuko dira ta, ziřez, ikuste atseřni izango da.

Ařate'ren azken-agurřa.—Ařate zařa badijoa ostiko-zelaitatik, ondo lan eginda ala ere. San Sebastian egunean jokatuko duan partiduarřekin akabo bere ostikolarřiza. Gaztetasuneko urte onenak ez ditu gaizki pasa, bere gorpuztari dagokionez beintzat. iAmalka ostiko jo ditu bere bizian, amalka txalo entzun dituz ta amalka tankateko ere arřu dituz! Bere almen ta izate guztia Donostia'ren alde jarři dituz beři.

Berari eskeřak Donosti'ko Real Sociedad'ek makifibat partidu irabazi dituz. Ondo egiten du Donostia'k ořen agur maitekořa berari egitea.

Bizkaitarřak egiřaletan ari dira Ařate'ri poza ematearen. Irun'en ere oso asmo onak darabilzkite ta ustegabeke eragozpenik azaltzen ez bada, 20'ean izango du Ařate'k bere azken-agurřa.

Bijoakio gure txaloe ta egun ofetaz bere bizitza guzřiko zoriona izan beza.